

30 URTE

EUSKARA IKERTZEN, EGOKITZEN, ZABALITZEN

KARMEL

(Aro berria)

BOSTAK BAT

(**ADOREZ** hiztegiak)

Jesusek beste parabola hau kontatu zien: “Jainkoaren erregetza gizon batek soroan ereiten duen mostaza-baziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da eta zurbaitz egiten, txoriek etorri eta adarretan habiak egiteko moduko zubaitza”. (Mat. 13, 31-33).

Nire asmoa ez da ibilbide luze hori zehatz-mehatz aztertzea, ikuspegi zabal orokorra eskaintzea baino. Bidezkoa iruditu zait epealdi berberean halako ibilbide luzea egin duten bi elkarte hauen berri zabala batera eskaintzea, *KARMEL* aldizkariak nahiz *BOSTAK BAT* taldeak nire bizitzan izugarritzko eragina izan baitute.

Epe luze horretako lanari buruzko gogoeta egitean bor-bor metatu zaizkit zenbait pasadizo, estualdi eta pozaldi, ur-jauzietan barrenera apar artean erortzen den urak tanta distiratsu bihurtzen diren antzera.

Hori dela eta jarri dizkizuet lanaren idazpuruan Ebanjelio-tik hartutako hitzak. Hain zuzen ere, apaltasunez beteriko hasiera izan zuten proiektuek garapen handia izan dutelako. Egin-eginean ere, emaitzez gainezka ageri zaizkigu bi elkarte hauek burutu dituzten lanak. Dagoeneko hainbat idazlek eta

ikertzailek egin dituzte beren habiak bertako adarretan, txorrotxio ugari gozatzeko aukera eskainiz.

Bestalde, urte muga bi horiek batera aurkeztu nahi izan dizkizuet, gorago argiago ikusi ahal izango duzun bezala, *KARME* aldizkariaren proiektua eta *BOSTAK BAT* taldeak burututakoa hainbatean elkarri eskua emanda gauzatu izan direlako. Partehartzaileen zerrendetara begiratu baino ez duzu, irakurle, bertan ageri diren zenbaitek proiektu bietan jardun izan duela ikusteko.

Talde bien helburuak ere antzerakoak izan dira. Hain zuzen ere, euskara, eraberritzen eta garatzen joan zaigun gizarte berriko premietara egokitzea. Talde biek jardun izan dute etengabeki *euskara ikertzen, egokitzen, zabaltzen*, izugarritzko lana burutuz. Euskara izan dute abiapuntu, euskara bidelagun, euskara helburu.

*KARME*lek ateak zabaldu dizkie idazle gazteei eta aukerak eskaini gainerakoei euren lanak herriarengana helarazteko. Guzti horiek ezer gutxi eskuratu dute ekonomikoki, doan jardun izan baitute hainbeste urtetan laguntza oparoa eskaintzen. Aldizkariak nekez egingo zuen aurrera laguntza zabal esker-gaitz hori gabe. Ez, behintzat, egin duen duintasunez.

Beste hainbeste gertatu zaigu *BOSTAK BAT* kultur taldearen lana burutzerakoan. Taldekideok urte guzti horietan hainbatek dohainik eskaini digun laguntza eskertu beharra sentitzen dugu. Gure hiztegieta ordainduta lan egin dutenak ere izan dute gurea baino aukera ekonomiko hobea. Urteetan zehar euren jakituria eta eskuzabaltasuna eskaini dizkigute.

Esan bezala, urte luze horietako bidean sarritan izan gara bi taldetako kideok elkarren ondoan gurdiari bultzaka. Askotan, gainera, bide aldapatsuan zehar. Hala ere, ez dugu etsi. Aurrera egin dugu. Eta horretan izugarritzko adorea eta gogoia eman digu inguruan izan ditugun laguntzaileen talde handi horrek.

Bestelako laguntzaileak ere izan ditugu, jakina. Horien artean ezin isildu behin eta berriro ikerketarako edota aldizkaria argitaratzeko Bizkaiko Foru Aldundiak eskuzabalez emaniko laguntza. Nori berea Jainkoaren legea! Laguntza hori ere ezinbestekoa izan dugu gure asmoak aurrera eraman ahal izateko. Aldizkariaren harpidedunak eta hiztegien erosleak ere ezinbestekoak izan ditugu. Horiek gabe aspaldi itoko zen gure ahalegina.

Beraz, proiektuak banan-banan aztertzen hasi aurretik, argi agertu behar dugu, bata nahiz bestea, elkar lanean edo auzolanean burututako lan oparoak izan ditugula. Aitortza hau eginez eman nahi izan diot hasiera lantxo honen mamia aurkezteari, proiektu bietan parte hartu duten guztiei nire eskerrik beroena agertuz.

1. KARMEL (Aro berria)

Duela 30 urte, ibilbide historiko luzea zuen *KARMEL* aldizkaria bide berrietatik abiatu zen, lemazain berria Julen Urkiza gaztea zuela. Berau ikasketak Austrian egin eta Euskal Herrira gogotsu eta adoretzu etorri berria genuen. Lanerako zuen kemenaz eta ikerketarako trebetasunaz jabeturik aldizkariaren zuzendari izendatu zuten. Egindako ibilbideak eta burututako lanek argi baino argiago erakutsiko digute zein egokia izan zen une hartan hartutako erabakia!

Julen Urkiza gazteak indar berriak eman, eta bide berriak ireki nahi izan zizkion aldizkariari. Eta ez bakarrik aldizkariari. Aldizkariaren inguruan euskararen aldeko liburugintza ere abian jarri zuen. European zehar beste aldizkari batzuen inguruan sortutako kultur produkzioen bideei jarraitu nahi izan zien, horretarako ezinbestekoak ziren baliabide ekonomikoak eta lortuz.

Laster konturatu ziren eragile gaztearen kemenaz euskal karmeldarrak. Adibidez, honako hau diosku Lino Akesolo

idazle finak, Julen Urkizak Muniategiren olerki-lanak liburu eder batean bildu zituenean: “Orain Muniategi onen olerki guztiak liburu baten batuta daukaguz... KARMEL aldizkari onen zuzendariak omenaldi au egin gura izan deutso aldizkari au bere olerkiz askotan jantzi izan dauan idazleari. Ez zituen hogei urtetik gora alperrrik egin Vienan ango lan oiturrak ikasten eta gero Europako ainbat Agiritegi arakatzen. Agirian dago maisu trebe baten eskua ibilli dala liburu au prestetan. Olerki bakotxa noz eta non argitaratua izan dan, zelango ezbardintasunak agertu izan diran argitaldi bakotxean edo eskuizkribuetan, liburu osoaren aurkibidea aurrean eta olerki bakotxaren alfabetozko zerrenda azkenean eta abar, ezin zeaztasunik gehiago eskatu liburu bati.” (Idazlan guztiak, 1***, 170. or.).



Hurrengo lerroetan ikusiko dugunez lemazain berriak indar berriak ekarri zituen. Jende berriari atea zabaltzen hasi zen,

besteak beste hainbat gazteri, tarteko zenbait emakumeri. Hauek, askoren harridurarako, izugarrizko ekarpena egin diote aldizkariari *Karmel* aldizkarian trebatutako hainbatek goi mailako idazlanak plazaratu dituzte azken urte hauetan.

KARMEL aldizkariak lehenago ere, ikuspegi politiko guztien gainera, hainbati ateak zabaldu bazien ere, areagotu egin da jarrera hori azken aro honetan, orain ateak ez ezik leihoak ere zabaldu dizkiela. Bertan printzipio nagusi batzuk onartzea baino ez da eskatu izan, hots, euskararen alde jardutea, elkarrenganako begirunea, Karmeldarron aldizkaria izanik erlijioarekiko errespetua... Printzipio gutxi eta lan ugari!


Karmel aldizkariak, bestalde, oreka lortu nahi izan du gaien nahiz euskara moten artean. Garai batean, zenbait eztabaida antzutan indarrak erre beharrean, euskalkien eta euskara batuen presentzia batera bideratu behar zela erabaki zenean, zuhurtzia handiz jokatu zela uste dut. Horrela, inori ez zaio aterik itxi euskara batua erabiltzeagatik ezta inor behartu ere euskalkia baztertzera. Bakoitzak erabakitzen du nola jokatu. Zuzendaritzak, alabaina, oreka mantentzeko ahaleginak egiten ditu gehiegikeriarik gerta ez dadin alde batera nahiz bestera. Hori bai, idazleak euskara egokia erabiltzea bultzatu izan da.

Honetaz, KONTSEILUKO arduradun dugun Paul Bilbao jaunaren hitzak gogora ekarri nahi nituzke: *Ezer baino lehen KARMEL aldizkariari erreferentzia egitea nahitaezkoa dela iruditzen zait. Lehenik eta behin zorionak belarazi nahi dizkiet KARMEL aldizkaria kalean egotea posible egiten duten guztiei. Jakin dakigu, gure bizkuntza oraindik egoera gutxiagotuan dagoela eta egungo gizartearen zaila dela aritalpen bati urtez urte eustea eta jarraipena ematea. Bada, KARMEL aldizkariak duintasunez eusten dio zeregin horri.* (*Karmel*, 2011-3, 57. or.). Esan beharra dago, bide batez, *Karmel* hasieratik dugula Kontseiluko kide, bere txikitasunean euskara bultzatzen lagunduz.

Gaiei dagokienean ere, ikuspegi zabalez jokatu izan da. Erlijosoen aldizkaria izateak ez dio oztoporik ekarri gainerako gaiak erabiltzeari. Gure *Karmel* aldizkariak hasiera-hasieratik kultura eta gizarteko gaiak aztertu izan ditu eta irakurleei gogoetak eskaini. Azken aro honetan sistematikoki zaindu izan da eskaintza zabal hori.

Horretaz konturatzeko *KARMEL* aldizkariko aurkibidera begiratu baino ez daukagu. Bertan honako banaketa zabal hau ageri da: *Kultura, Gizartea, Eliza, Iritziak, Literatura (kontu-kontari eta olerkiak)*. Horrela, idazleei aukera ematen zaie bakoitzak gogoko duen alorrean jarduteko. Inoizka, egia esan, ale monografikoak edo erdi monografikoak ere argitaratu ditu, batez ere bertako idazle izandakoei, mendeurrenak eta tarteko direla gogora ekarriz, ohore egiteko asmoz. Alde horretatik begiratuta une honetan iturri biografiko ezinbestekoa dugu hainbat euskal idazleren bizitza eta lanak ezagutzeko.

Julen Urkiza lema-zain berriak aldizkariaren ardura hartu zuenetik igaron diren 30 urte hauetan hainbat lan burutu izan ditu. Gorago bide batez aipatutakoaren arabera, aldizkariarekin batera bi liburu-sorta ere abian jarri izan ditu. Egin eginean ere, *KAR-MEL SORTA* eta *KARMEL*



LEKUKOAK. Liburu horien bidez euskal herritarren esku jarri nahi izan ditu hainbat euskal idazleren lanak, geroago eskainiko dizkizuedan zerrendan ikusiko duzuenez.

Bestalde, datu estatistikoetara jo aurretik gogora ekarri nahi dizuet, baita ere, Julen Urkizak baduela beste ikerlan eder bat ere argitaratua, aurrerantzean ezinbesteko kontsulta-liburu izango dena. Hain zuzen ere, *Elizaren Historia Euskal Herrian* (Markina, 1995). Euskarako idazketaren arduraduna, ostera, idazle aparta eta itzultzaile bikaina dugun Luis Baraiazarra izan zen.

KARMEL SORTA barruko liburuaren artean aipamen berezia merezi du Julen Urkiza ikertzailearen *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia* (Markina-Xemein 1999, 1740 or.; KS-11) ikerlanak. Berau abiapuntutzat hartuta hainbat lan monografiko argitaratu ahal izan dituzte herririk herri, bertako bertsolari eta olerkarietara ohore eta aitortpena eginez.

Azkenik, bide batez, gogora ekar dezagun *KARMEL* aldizkariak arnasa luzeko historia duela. Estiloaren nahiz gaien alorrean aurpegi desberdinak erakutsi izan ditu. Bizirik jarraitzeko giza eta politika egoera latzei aurre egin beharra ere izan du.

Hori horrela, hiru aro desberdin bereiz genitzake aldizkari honen historian:

- a) lehenengo aroa (*Karmen'go Argia*, 1631-1936).
- b) bigarren aroa (Karmen'go Amaren egutegia, 1951-1956; *Karmel/Euskal Egutegia*, 1957-1961).
- c) hirugarren aroa (*Karmel*, 1970-2013).

Orain, baina, hurrengo lerroetan azken 30 urte hauetan, hots, Julen Urkiza zuzendari izendatu zutenetik *KARMEL* aldizkariak burutu duen lanaren berri eskematikoa eskaini nahi dizuet begirada bakar batean jabetzeko eran. Ez dugu gehiagorako lekurik.

Bibliografia:

1. Aldizkari-aleak: guztira 120 zenbaki; 15.000 orrialde baino gehiago, idazle ugariak parte hartuz. Zenbaki horien artean zenbaki monografikoak ere izan dira. Honako hauek nabarmenenak: 25. urteko zenbaki bi, Fray Bartolome, Aita Emiliano, Edith Stein, etab. Baita ale handi batzuk ere, hala nola, Juan Gurutzekoari, Lisieuxko Teresari, Gabriel Jauregiri eskainitakoak...

2. Karmel-Sorta (KS) bilduma: 15 liburu

- * Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*, 3 t., Larrea-Zornotza, 1989-1992. KS-1*, 1**, 1***).
- * Santiago ONAINDIA, *Olerki guztien bilduma*, Larrea-Zornotza, 1989, 342 or., KS-2).
- * Sabin MUNIATEGUI, *Olerki guztiak*, Larrea-Zornotza, 1990, 1155 or., KS-3).
- * *1491 Loiolako Inazio – Joan Gurutzekoa 1591*, Larrea-Zornotza, 1990, 511 or., KS-4).
- * Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Larrea-Zornotza, 1992, 936 or. (Euskaratzailea: Patxi Uribarren) (KS-5)
- * Balendin AURRE-APRAIZ, *Egunen bidean*, Larrea-Zornotza 1994, 416 or. (KS-6).
- * *Aita Gabirel Jauregi Uribarren (1895-1945)*, Markina 1995, 512 or., KS-7).
- * TERESA DE LISIEUX, *Idazlan guztiak. Testuak eta Azken Elkarrizketak*, Markina-Xemein 1996, 1223 or. (KS-8).
- * *Teresa Liseiux-koa (1873-1897)*, Markina-Xemein 1996, 389 or. (KS-9).
- * FR. ZUZAETA – FR. ARAKISTAIN, *Idazlanak*, Markina-Xemein 1997, 333 or. (KS-10).
- * Julen URKIZA, *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia*, Markina-Xemein 1999, 1740 or. (KS-11).

- * Frai BARTOLOME SANTA TERESA, *Idazlan guztiak. Edizio kritikoa*, Bilbao 2000, 1557 or. (KS-12).
- * Friedrich HÖLDERLIN, *Olerki guztiak (edizio elebiduna)*. Euskaratzaileria: Luis Arostegi, Markina-Xemein 2012, 1010 or. (KS - 13).

3. Karmel Lekukoak Bilduma: 1-7:

- * TERESA JESUS HAURRARENA, *Eskuizkribu autobiografikoak* (euskaraz-frantsesez), Markina-Xemein 1998, 439 or. (Itzultzailea: Luis Baraiazarra) (Karmel lekukoak – 1).
- * *Karmeldar Teresiarren Ordenako Orduen Liturgia*, Markina-Xemein 1998, 342 or. (Karmel lekukoak – 2).
- * Aita BEOBIDE, *Joan Bizente Zengotita-Bengoa. Apostolu eta misiolari handi baten bizitza eta lanak (1862-1943)*, Markina-Xemein 1998, 332 or. (Karmel lekukoak – 3).
- * Aita BEOBIDE, *Aita Aureliano Landeta Azkueta (1887-1963). Basauritar beneragarriarena*. Markina-Xemein 2000, 280 or. (Karmel lekukoak - 4).
- * Julen URKIZA – Luis BARAIAZARRA, *Karmeldarrak Euskal Herrian. Nafarroako San Joakim Karmeldar Probintzia (XIII-XX. Mendeak)*, Markina-Xemein 2010, 309 or. (Karmel Lekukoak - 5)
- * *Salmoak. Lino Akesoloren mendeurreneko argitalpena*, Markina-Xemein 2011, 39 + 262 or. (Karmel Lekukoak – 6)
 - * SANTA TERESA JESUSENA, *Bizitza liburua* (Euskaraz – Gaztelaniaz) (Itzultzailea: Luis Baraiazarra), Markina-Xemein 2012, 709 or. (Karmel Lekukoak – 7).

Idazleak: Idazleak bi sortatan bildu nahi izan ditut. Lan bat baino gehiago egindakoak eta behin bakarrik idatzi dutenak. Jakina, batzuk aldizkariaren zutabe izan ditugu urtero lan bat edo gehiago idatziz. Hauen datu zehatzak bilduak dituzue, *Karmel* aldizkari honen mendeurreneko zenbakian. Guztiei es-

kerrik beroenak ibilbide luze honetan, bakoitzak bere ahalmenaren arabera eman digun laguntza eskergaitzagatik. Alfabetikoki aipatzen dizkizuet:

a) Hainbat idazlan idatzitakoak:

AGIRRE ZELAIA, Kepa; AGIRREBALTZATEGI KORTABARRIA, Paulo; AKESOLO OLIVARES, Lino; ALDEKOA-OTALORA, Anttonmari; ANDRINUA, Martzel; APEZETXEA, Pello; AREJITA ONARTE-ETXEBARRIA, Adolfo; ARKOTXA, Aurelia; AROS-TEGI GANBOA, Luis; ARRIETA IDIAKEZ, Javier; ARRIETA, Jolanda; ARRIZABALAGA ALBERDI, Juan Maria; ARTZE, JosAnton; AURKENERENA BARANDIARAN, Joseba; AURKENERENA, Etxahun; AURRE APRAIZ, Balendin; AURREKOETXEA OLABARRI, Gotzon; AZPILLAGA, Jon; BADIOLA, Augustin; BARAIAZARRA TXERTUDI, Luis; BARAIAZARRA TXERTUDI, Pilare; BATIZ BILBAO, Bizente; BELOKI IRAOLA, Augustin; BIDAGUREN ARRIEN, Angel; BILBAO, Leire; BORDA, Itxaro; CANO, Harkaitz; DAÑOBEITIA MADARIAGA, Miren Itziar; DUÑABEITIA AGIRREBEITIA, Julian; EGIA, Lutxo; EGUZKITZA, Andolin; ENBEITA, Jon; ERIZE DE LA RICA, Jabier; ERKIAGA ALASTRA, Eusebio; ETXEBARRIA LEJARRAGA, Jose Mari; ETXEBARRIA, Jose Ramon; FERNANDEZ, Jon; GALLASTEGI, Cesar; GANDARIAS IBAIBARRIAGA, Higinio; GARATE GOIHARTZUN, Gotzon; GARATE GOIHARTZUN, Jenaro; GARMENDIA, Roman; GESALAGA ALKORTA, Jose Antonio; GOIKOETXEA ARRIETA, Juan Luis; GOIRIA MUNIOZGUREN, Jose Antonio; IBARRA, Iru-
ne; INTXAUSTI, Joseba; IRIARTE, Juan Felix; IRIGOIEN, Joan Mari; ITURBE, Jacinto; ITURBIDE, Amaia; ITURRIAGA URIARTE, Jose Ramon; JUARISTI, Patxi; KALTZAKORTA, Xabier; KORTA, Jon; KORTAZAR, Jose Mari; KOSKORROTZA, Gabin; LATIEGI ERASO, Bixente; LEJARZA GOROSTIZA, Sebastián; LOBERA REVILLA, Anjel; MARTIARTU, Iñaki; MEABE PLAZA, Miren Agur; MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier; MONTORIO URIBARREN, Bego; MUNIATEGI ASTORKIA, Sabin; OLEA AGIRREGOMEZKORTA, Andoni; ONAINDIA, Santiago; ORBE, Martin; OTXOTTEKO VAQUERO, Pello; PALAZIO, Gorka Jakobe; PENADES BILBAO, Josu; PUXANA AGIRREGABIRIA, Pedro; ROZAS, Ixiar; SALABERRI MUÑO, Patxi; SARRIUGARTE IRIGOIEN, Iñaki; SERRANO, Asier; SOLOZABAL SOLOZABAL, Paulin; SUAREZ, Castillo; TOBAR-ARBULU, Joseba Felix; UGARTE AZURMENDI, Martin; UNZUETA ETXEBERRIA, Antonio; URIBARREN LETURIAGA, Patxi; URIBEZUBIA OLEA, Nerea; URKIZA IBAIBARRIAGA, Ana; URKIZA TXAKARTEGI, Julen;

URRUTIA BADIOLA, Andres; URTEAGA GARMENDIA, Joxemari; ZELAIETA, Edu; ZUBIKARAI BEDIALAUNETA, Augustin; ZUBIKARAI BURGOA, Joseba; ZUBIZARRETA ARRIZABALAGA, Karmelo; ZUBIZARRETA OSTOLAZA, Luis; ZUGAZAGA MARTIKORENA, Lorentzo

b) Idazlan bakarra idatzitakoak:

AIZPURUA BARANDIARAN, Jexux; ALTZIBAR, Xabier; ALZIBAR ARRINDA, Koldo; AMUNDARAIN, Dionisio; ARANA MARTIJA, Jose Antonio; ARRIETA, Joseba; ARRIETA, Joxe Agustin; ARRIETA, Mari Karmen; ARRIOLABENGOA, Julen; ARTETXE, Estibalitz; ASURMENDI, Mikel; AULESTIA, Gotzon; AURTENE-TXE ELORRIAGA, Arantza; BADIOLA, Jose Antonio; BADIOLA, Josune; BAKAIKOA AZURMENDI, Baleren; BARANDIARAN ETXEBERRIA, Daniel; BARANDIARAN, Angel; BASTERRETXEA, Jose Inazio; BENGOA, Joan Karlos; BERISTAIN MADARIAGA, Aiora; BERRIDI, Guruzne; BIDADOR, Joxe Miel; BILBAO SARRIA, Paul; BILBAO, Begoña; BUJANDA OÑADERRA, Mixel ; BURGOA PAGATE, Jose; DAVANT, Jean Louis; DIHARCE, Jean Marie (Iratzeder); EGIDAZU, Jon; ELUSTONDO, Miel A.; ETXABURU, Mikel; ETXEBARRIA ETXEITA, Mikel; EZKIAGA, Patxi; GARCIA TRUJILLO, Sebastian; GERRIKAGOITIA BARRUETABEÑA, Jose Luis; GOIKOETXEA, Atotz; GOÑI, Iñaki; Ibarria, Patxi; IGERABIDE, Juan Kruz; IRASTORZA, Tere; ITURRIOZ ARREGI, Jesus; KALTZAKORTA MENTXAKA, Mitxel; KORTADI OLANO, Edorta; LARRAZA LAKUNZA, Juan Luis; LARREA ZELAIETA, Juan; MAKIBI ENOMIYA LASSALLE, Hugo; MARCUELLO NAVARRO, Vicente; MARTINEZ DE MARIGORTA Guzman; MARTINEZ M., Josetxu; MENA ABASOLO, Itziar; MENDIBIL, Gontzal; MINTEGI, Laura; OLAZAR URIBE, Martin; ONAINDIA, Jabier; OSA, Erramun; PACHO, Eulogio; PADRON PLAZAOLA, Jose Luis; REMENTERIA, Jose Maria; TELLETXEA IDIGORAS, Jose Ignacio; TXURRUKA, M.J.; UNZUETA, Floren; URIARTE GOIRIZELAIA, Juan Maria; VILLAR, Lurdes; ZALAKAIN, Jexuxmari; ZENDOIA GARATE, Jesus Maria; ZUAZUA URRUTIA, Damaso

Irudiak eta azalak: Ezin aipatu gabe utzi gure aldizkari honi azken urte hauetan aparteko bizitasuna eman dion diseinatzailerudigilea. Berau Juan Mari Arrizabalaga dugu. Mila esker, Juan Mari. Jarrai gure aldizkarian zure lan ederrak argitaratzen eta azalak apaintzen.

2. BOSTAK BAT (ADOREZ hiztegiak)

BOSTAK BAT taldeak orain dela 30 urte (1983) eskaini zion euskal gizarteari *Sinonimoen Hiztegia* bere lehen hiztegia. Oso gutxik uste izango zuen orduan gazte talde hark euskara munduan hain bide luzea egingo zuenik. Egin-eginean ere, hasierako urrats hura euskal gizartean nabaria zen hutsune zehatz bati erantzuteko asmo hutsez zetorrelako.

Gogora ekartzekoak ditugu Luis Baraiazarra taldekideak Bilboko Liburu azokan *BOSTAK BAT* taldeko kideoi urrezko luma eman zigutenean (2011) jendaurrean egindako hitzaldiaren hasierako hitzak. Bertan biltzen ditu labur-labur *BOSTAK BAT* taldearen hasierako asmoak eta etorkizunari buruzko ametsak:

“Gure bideak banandu nabiz batu egiten dira. Gure kasuan, antzeko asmo, helburu eta jardueretan genbiltzanok, hau da, irakaskuntzan, gau-eskoletan, alfabetatze eta itzultzaile lanetan genbiltzanok batu egin ginan eta premiazko arlo bat aurrean ikusirik, hari ekin geuntsan gogotsu. Hiztegegintzaren arloa zan. Zehatzago esanda, hasiera harretan, euskara hutsezko edo definiziozko hiztegiarena. Hiztegi elebidunen arloa pixka bat landuago egoan: aspaldiko hiztegiak batetik; barriagoak eta gaurkotuak bestetik. Horregaitik, aurrean genduan euskara hutsezko hiztegien erronkari erantzun nabirik hasi ginan. Horretan lehenengoetarikoak izan ginan; lehenengoetarikoak dinot, lehenengoak ez esatearren. Izan be, artean ez egoan, horretan, lan xume bat edo beste baino. Beraz, aitzindariak ginalako kontzientziaz ekin geuntsan lanari. Ez genkian noraino eroango ginduzan bide barek, ezta noiz amaituko genduen geure ibilera be. ‘Euskararen Hiztegia’ argitaratu genduan ezkerero, 25 urte igaro dira, eta gu bemen gagoz; bide hau oraindino luzea izan daiteke. Gu, honezkerero, ekarpenik onenak eginak garel dirudi, baina arlo bonetan oinordekoak izango ditugun esperantza dugu...” (Karmel,2011-3, 5. or.)

Sinonimoen Hiztegia (1983) argitaratu genuenetik aurrera etengabeki jardun izan du *BOSTAK BAT* taldeak euskara iker-tzen, egokitzen, zabaltzen. Urte asko igaro diren arren, oraindik lanean dihardu eta asmo ugari buruan dituela, gainera. Gure lehen hiztegiaren argitalpena gogoratu nahi izan dut ho-geita hamar urtetan zehar eginiko bide luzearen hasiera izan zelako. Aukera ederra gertatzen zaigu, bestalde, urte luze guzti horietan zehar egindako lana gogoratzeko nahiz aurrera begira ditugun asmoak plazaratzeko.

Hiru zutabe nagusitan eraiki izan dugu gure lan osoa. Hiru motako hiztegiak biltzen ditu *ADOREZ* sortak: Sinonimoen hiztegiak, Definiziozko hiztegiak eta Hiztegi elebidunak. Beraz, hiru alorretan jardun izan dugu, urteak joan urteak etorri, gaur egungo egoerara heldu garen arte.


Gizartean azken urte hauetan izan diren aldakuntza sako-nek eragin zuzena ekarri diote euskal hiztegi-gintzari. Une honetan Internet bidezko eskaintzak ari dira nagusitzen, pape-rezko hiztegiak hainbatean etorkizun ilunagoa izanik. Hiztegi-gintza alorreko eskaintzak eta aukerak ere hainbatean ugaritu dira gure artean, eta horrek gogoeta sakonagoa egitera bultza-tu gaitu.

Gure taldearen asmoak, gainera, aspalditik ditugu zehaztu-ta, *Europa Hiztegiaren* hitzaurrean ageri denez: “*Gure asmoa, garaian garaiko premiei erantzutea eta euskarazko bidea hau-tatu duten eskola, alfabetatze-talde, guraso nabiz beste edono-ri, material egokia eskaintzea izan da*” (*Europa Hiztegia*, 1993. Adorez 6)

Asmo guzti horiek eta egindako bidearen zertzeladak argia-go aditzera emateko, hurrengo lerroetan 30 urteko ibillbidean zutabe nagusi izan diren hiru hiztegi –*Sinonimoen hiztegia*, *Euskararako Hiztegia eta 3000 hiztegia*- abiabidetzat hartuta jardungo dut hurrengo lerroetan.

1. SINONIMOEN HIZTEGIA (1983)

Aurreko lerroetan esan dudan bezala *Sinonimoen Hiztegia* izan genuen *BOSTAK BAT* taldeko kideok gure ibilbide luzearen abiapuntu. 1983an aurkeztu genuen Durangoko azokan. Berrikuntza handia izan zen, zer esanik ez. Izan ere, euskara hutsezko hiztegi bat argitaratzea ez zen garai haietan ahuntzaren gauerdiko ezstula. Ausardi handiz argitaratutako hiztegia zela konturatu zen eskal jendea eta gure eskaintzak erantzun paregabea jasozuen. Beldurrez aurkeztu genuen porrot ekonomikoa izateko kezka genituen eta. Alabaina, euskaldunek berehala ulertu zuten gure erronka.



Garai hartan, bestalde, halako hiztegi baten beharizan gorrria izateaz gainera, euskarari bultzada emateko gogo bizia ere nabarmentzen zen bazterretan. Horrela, argitalpen erdia baino gehiago saldu zen Durangoko azokan. Izugarritzko arrakasta guretzat. Horretan asko lagundu zigun Euskal Irratian Pello Zabaleta jaunak Juan Luis Goikoetxea eta niri egin zigun elkarrizketa luzeak.

Gertakari hori izan zen gure 'olinpiada' abian jarri zuen erronka deia. Hiztegi xumea zena ekinaren ekinez eta denboraren eraginez zuhaitz eder bihurtuko zen. Hiztegi hori, bestalde, euskalkien arteko zubiak egiteko bide ere izan zen, oinarri-oinarriko zenbait kontzeptu euskalki ezberdinetako hitzak

elkarren ondoan zirela agertzen ziren eta: *amona, amama, amaxi, amaso, amandre...* eta honelakoak.

Hiztegi horren azala ere irribarretsu zetorren, begiak zabal-zabal aurrean genuen euskal mundu berri bati begira edo. Euskara hutsean hain liburu gutxi zegoen garai haietan gogo biziz jaso zuten ikastolek eta gaueskolek beren aspaldiko egarria asetzera zetorren hiztegiño hura. Egin-eginean ere, 12.000 sarrera inguru biltzen zituen hiztegi hark laguntza handia ematen zuen euskalkiak ezagutzeko eta euskara aberasteko.

Hasierako oinarrizko *Sinonimoen Hiztegi* hari beste hiztegi handiago bik jarraitu diote geroago, alorra jorratzen jardun baikenuen: *Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna* (1988. Adorez 3) 5.000 sarrera gehiago zituena. Eta *Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna* (1999. Adorez 8). Hiztegi honek goia jo zuen, sinonimoen hiztegi hutsa izatetik hiztegi erdi ideologikoa izatera helduz. 35.000 sarreratik gora ditu. Azken hiztegi hau herriarren esku izan da sarean urteetan zehar Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko hiztegien artean

Hiztegi horren sarreran honako hau irakur dezakegu:

1. Norentzat egina

Nola edo bala irakaskuntza munduari loturik bizi izan garenez, hortik sortu zaigu honelako hiztegi baten premia. Gelditu ere, gure ikastolumeak, erdaraz ikasten duten ikasleek dituzten aurrerakuntzen ondoan, eskas gelditzen zaizkigu hiztegi alorrean. Urritasun honi nolabaiteko irtenbidea eman nahian kaleratzen dugu gure hau ikasle-irakasleentzat baliabide izango den ustetan.

Hiztegi hau, bada, ondoko guztiei eskaintzen diegu:

Ikastetxe elebidunetako azken urteetako ikasle-irakasleei, gure bizkuntzaren aberastasunak eskuratzeko abiabide izan dezaten.

Euskarako titulua eskuratzeko lanetan dibarduten guztiei, euskara oparotasunez erabiltzeko aukerak eskaini nahian.

Bertsolari Eskoletan lanean dibardutenei, heuren bizkuntza jokoak errazteko, sakontzeko, pipertzeko lagungarri izango duten ustetan.

Idazle, kazetari, olerkari, itzultzaile eta abarri ere, baliagarri gerta dakiekeela uste dugu.

Azkenik, euskaldun guztiei, euskarak dituen aberastasun oparoak ezagutu, norberaganatu eta euskara janzteko bide berriak eskaintzeko amotan. (Sinonimoen Hiztegia. (1983. Adorez 1, 6. or.)

2. EUSKARARAKO HIZTEGIA (1986)

Aurreko lerroetan aipatu dudan Pello Zabaletarekin izandako elkarrizketa luze hartan erronka bat ere jarri zigun aurrez aurre. Definiziozko hiztegi bat egitera animatu gintuen. Euskaldun haurrek erdararen mende egon gabe euskaraz jarduteko ezinbestekoa zela halako hiztegi bat errepikatu zigun behin eta berriro.

Hasiera batean lan neketsuegia edo iruditu zitzaigun. Horrelako lan batek ahalegin handia eskatzen zigun. Hala ere, zenbait bileretan gaia aztertu ondoren, jardunari aurre egitea erabaki genuen, bide batez lan hain astunerako pertsona aproposaren bila hasiz. Azkenik, zenbait oztopo gainditu eta Luis Baraiazarra irakaskuntza-lanetatik askatu, eta gure hiztegitan dedikazio osoz lanean aritzea lortu genuen. Apustu gogorra izan zen, baina, taldearen iraupenerako nahiz proiektuen garaipenerako ezinbesteko urratsa. Bere esku izan zen lanik astunena, gainerako taldekideok laguntzen jardunez.

Hiztegia aurkezterakoan argi aipatzen dira gerora ibilbide osoan beti jarraitu izan ditugun zertzelada nagusiak. Adibidez, zergatik ez dugun euskalkirik aipatzen. Honako hitz hauekin ematen genion hasiera aurkezpen luzeari:

Hitzen sorterria zein den edo eta zein euskalkitakoak diren adierazi gabe, euskaldunen artean ahoz-ahoz eta lumaz-luma

erabiliak, bedatuak eta finkatuak izatea hartu dugu erizpidezat. (...)

Beraz, zertarako hiztegi berririk? Aurreko hiztegegintzaren segida besterik ez izatekotan, haren ildotik ezer berezirik eskaini gabe aritzekotan, erdi alferrikotzat jo zitekeen... Baina ez! Era bateko nabiz besteko hiztegien goraka gertatu arren, bazen hor hutsune larririk ere: euskaldunontzat euskaraz egindako hiztegirik eza; hau da, auzoko erderetan hain oparo ageri direnen antzeko azalpen-hiztegi baten gabezia nabaria.

Beharrian horrek eraginda, buru eta bihotz ekin genion lanari. Sei lankideren etsi gabeko ekintzaren emaitza duzu liburu hau. (...)

Euskara, egungo gizarte berri, aldakor, aurreratu honetan leku egin nabirik, hartara moldatu nabirik ari denean, urrats bat eman nahi dugu aurrerantz, euskaldunok auzoko erderetara jo beharrik izan gabe, geureaz balia gaitezten. (...)

Hiztegi orotan egin obi den bezala, lehenago eta orain, ikerketa sakon eta neketsuen bidez lortutakoa bildu, galbae didaktikoan iragazi eta erraz jateko opil bero, bigun gisa eskaintzeari gagozkio, batez ere, lan honetan". (Euskararako Hiztegia, 1986. Adorez 2, XIII. or.).

Horrela, hiru urteren buruan, lan gogor hori burutzea lortu genuen, EUSKARARAKO HIZTEGIA ospetsua argitaratuz. Eta ospetsua diot, hala izan zelako. Izugarrizko arrakasta izan zuen. Urte gutxiren barruan 20.000 aletik gora saldu ziren. Horri esker egin ahal izan zuen aurrera geroago eta indartsuago gure taldeak. Hiztegi honek, bestalde, sari eder bat ere jaso zuen eta horrek areagotu egin zuen gure adorea, lehendik gogotsu ari gineno i bultzada emanez. Jasotako diruak taldea finkatzeko eta lana sendotzeko erabili genituen, horri esker etorkizuna bideratuz.

Horrela, hiztegi horretan hasitako lana erabiliz arloa jorratzen jarraitu genuen. Horren emaitza ederrak izan ditugu geroago argitaratutako definiziozko beste zenbait hiztegi: *Euska-*

rarako Hiztegia. Oinarrizkoa (1990. Adorez 4); *Eskola Hiztegia. Irudiduna* (1991. Adorez 5); *Europa Hiztegia. Eskola berrirakoa* (1993. Adorez 6); *Eskola Hiztegia. Irudiduna. Berriztatua, eguneratua* (2005. Adorez 5*); *Euskal Hiztegia* (2011. Adorez 13).



Hiztegi elebakar hauen artean bi nabarmen ditzakegu, batez ere. Batetik, *Europa Hiztegia*, hurrengo puntuan aurkeztuko dizuedan *3000 Hiztegia* handiaren euskara-gaztelania aldeko sarreren eta tratamenduaren oinarri izan zelako. Hiztegi honetan gainera izugarrizko ikerlana bildu genuen. Aurreko hiztegietan baino askoz material gehiago: 26.382 sarrera (+11.022); 20.204 adibide (+11.520); 34.012 adiera (+13.043); 10.410 sinonimo (+4.020); 31.992 definizio (+12.756).

Bestetik, aparte aipatzea merezi du, baita ere, gaur egun ikastola munduan erabiliena den *Eskola Hiztegia. Irudiduna. Berriztatua, eguneratua* (2005. Adorez 5*) hiztegiak, azaleko

txoritxo delata tarteko 'txoritxoduna' deituak. Liburuaren sarrean azaltzen denez, hitzen erabilerari buruzko ikerketa sakon bat egin ondoren, bertako emaitzak aplikatuz argitaratu genuelako edo. Horrek, jakina, aparteko aberastasuna gehitu zion. Azken argitalpen horrek, Euskaltzaindiak onartutako arauen arabera aurkeztu genuenez, oraindik eguneratuta jarraitzen du, euskara baturako onartutako sarrerak egokiro identifikatzeko kurtsibaz eskaini genituen eta.

3. 3000 MILA HIZTEGIA (1996)

Europa Hiztegia burutu ondoren, gogoeta sakon bat egin genuen, hain zuzen ere, garai hartan Elhuyar elkarteak *Hiztegi Entziklopedikoa* argitaratu zuelako, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz jendeari oso merke eskainiz. Horren ondorioz beteta zeuden, hainbatetan, definiziozko hiztegien premia larriak. Bestalde, zartada handia eman zigun herri erakundeen laguntzaz merkatuko legeak hausten zituen horrelako eskaintza merkea egiteak. Une larri bat jasan genuen. Gertakariak bide berriak urratzera behartu gintuen.

Une hartan, bestalde, kalean genituen bi hiztegi elebidun moderno: *2000 hiztegia* eta Gereñoren hiztegia. Gure taldeko bi kide, bestalde, *2000 hiztegia* egiten ibiliak ziren. Hartuta ziztuzten konpromiso legal batzuk gainditu ondoren, hiztegi elebidun berri handi bat egiteari ekin genion, hots, *Diccionario 3000 hiru mila Hiztegia* hiztegi handiari.

Hiru urte luzeko lan neketsua izan zen. Euskara-gaztelania aldeko sarrerak aukeratzeko orduan oinarritzat *Europa Hiztegiak* hartu genituen, ondoren hemendik eta hortik zerrendak bilduz osotzea lortuz. Lino Akesolok prestatuturik *Diccionario de Autoridades de Retana* hiztegiak laguntza handia eman zigun zerrenda osatzeko nahiz gaztelaniarako bidea egiteko. Beste hainbat iturri ere erabili genituen zerrenda biribiltzeko, besteak beste, UZEI ateratzen ari zen hiztegiak, Administra-

zioak kaleratutakoak, Irakaskuntzarako prestatutakoak eta beste hainbat.

Gaztelania-euskara alderako metodo egokiena Plazido Mujikak *Diccionario Castellano-Vasco* hiztegian erabilitakoa -gaztelaniazko adieren esanahiak zehazteko sinonimoak eranstean dituzte irudituz zitzaizun. Horrek adierak ongi taxutzea zekarren, eta bide batez *2000 hiztegia* deiturikoaren anabasa baztertzeko. Horretan urrats handia eman genuen, geroago etorri izan diren hiztegi gehienak hark abian jarri, eta guk osorik onartutako bidetara jarraitu diotelako.

Gogoratzea da, baita ere, *Diccionario 3000 hiru mila Hiztegia* izan zela generoaren bereizketa egin zuen lehena. Ordura arte gaztelaniazko hitzak aipatzean genero maskulinoa erabiltzen zen bakarrik. Guk argi ikusi genuen genero arazo horri irtenbidea eman behar geniola.

Hona zer agiri den hiztegiaren sarreran: “*Bestalde, hiztegi bonetan, orain arteko hiztegietan egin izan dena gaindituz, aparteko arretaz erabili da generoa, maskulinoa nabiz femeninoa. Gaztelaniaren eta euskararen arteko zubi egokia egin*”



nabi izan da, horrek hainbat zailtasun ekarri badigu ere. Pil-pil dugun arazo honi ere erantzun orokorra eta zehatza eman diogula uste dugu” (Diccionario 3000 hiru mila Hiztegia. 1996. Adorez 7, XII. Or.). Aurrerantzean, beste hiztegi guztiek, ezinbestez, bide horretatik jokatu dute.

Hiztegi elebidun handi hori egiterakoan izandako asmoak ere sarreran jasotzen dira:

Euskara bizia eta gaur eguneko premiak gogo-gogoan izan ditugu hiztegia egiterakoan (...).

Laburbildurik, honako hauek dituzue hiztegi bonen berezitasun nagusiak

Euskararen mendez mendeko aberastasunak biltzea eta gaztelaniazko berezitasunein euskarazko baliokide egokiak ematea.

Generoari, orain arteko hiztegietakako joerak gaindituz, osoko erantzuna ematea.

Zalantzaszko hainbat hitz argitzea, Euskaltzaindiaren arauetara jarraituz batasun bidean urrats berria emanez.

Hizkuntza bakoitzari dagozkion ezaugarri gramatikalak eta hainbat bitzen ezaugarri zientifikoak aurkeztea.

Euskaraz moldatu nahi duen edonori zuzendua eta bereziki egunero sortzen diren hizkuntza eskakizunen aurrean, baliabide praktikoa burutzea.

(Diccionario 3000 hiru mila Hiztegia. 1996. Adorez 7, XII. Or.).

Hiztegi honek, *Euskararako Hiztegiaren* antzera, izugarriko arrakasta izan zuen, eta urte horretatik aurrera burutu genuen lanaren euskarri ekonomiko bihurtu zitzaigun. Hainbatean *Europa Hiztegiak* sortutako porrotetik aurrera egiteko indar berriak emanez. Handia izan da urterik urte emandako bultzada ekonomikoa. Horri esker jarraitu izan dugu gaur arte proiektuak burutzen eta aberasten. Euskarri informatikoan argitaratuz urrats berria eman genuen. Interneteko sarean izan da urteetan zehar doan herritarren esku Eusko Jaurlaritzako

Kultura Saileko hiztegien artean. Euskarako lehen CDa ere hiztegi honena dugu.

Hiru berriztaketa sakon izan ditu ordutik hona. Bata, sei urte geroago: *Diccionario 3000 Hiztegia. Eguneratua eta osatua* (2003. Adorez 7*). Hala ere, ez zen hor amaitu gure lana. Euskaltzaindiak batuko zerrendak argitaratu ahala hiztegia berriztatzen jarraitu izan dugu, azken bertsioa, *ADOREZ hiztegiak* (2009. Adorez 11), BBK-ren laguntzaz argitaratzea lortu genuen arte.

Geroago ere etenik gabe jarraitu izan dugu berriztatzen eta aberasten, Euskaltzaindiak aldian-aldian hartu izan dituen erabakiak bertaratu, eta eskatzen zuten zuzenketak eginez. Aurreantzean *ADOREZ hiztegiak-5000 Hiztegia* deituko da. Dagoeneko paperean argitaratutakoak baino 8.000 sarreratik gora ditu. Alde bietan (euskara-gaztelania/gaztelania-euskara) Euskaltzaindiak euskara baturako onartutako hitzak letra etzanez edo kurtsibaz aurkezten dira, kontsulta egitera hurbiltzen denak argibide hori izan dezan.

Hiztegi handi hori oinarritzat hartuz beste bi hiztegi erabilgarriago egin ditugu, jende artean arrakasta handia izan dutenak: *Diccionario escolar 3000 eskola hiztegia* (-Hiztegi Batua era Didaktikoan-. 2002. Adorez 9). Hiztegi honek geroago eta toki nabarmenago egin du merkatuan. Behar bada handiak baino prezio txikiagoa duelako edota tamaina oso erosoak duelako. Egia esan, ardura handiz prestatu genuen, beraren antzekoa den *Eskola Hiztegia* definiziozkoak izandako arrakasta kontuan izanik.

Honako hau irakur dezakegu hiztegi horren aurkezpenean:

“Hiztegi hau, jada ezagutzen dukezun ‘Hiztegia 3000’-aren eskolarako bertsioa da. Hortik dator kio izenburua: 3000 Eskola Hiztegia, bain zuzen ere. (...)

Hiztegia une historiko konkretuan sortu da. Hots, Euskaltzaindia ‘Hiztegi Batua’-ren lehen idaztaldia gauzatzen zebi-

len garaian. (...) 'Bostak Bat Lantaldeak', eskuetan duzun hiztegi hau arin-arinka atera ordez, nabiago izan du Euskaltzaindiak bere lehen ekarraldiaren azen bertsioa amai zezan, behin betiko bertsioa erabiltzeko,. Honenbestez, Euskaltzaindiaren 'Hiztegi Batua'-aren azken bertsioa jarraitzen du hiztegi honek'. (Diccionario Escolar 3000 Eskola Hiztegia. 2002. Adorez 9, IX. Or.)

Bide batez aipatu den bezala, badugu beste hiztegi elebidun txikiago bat ere, hain zuzen ere *Motxilako Hiztegia* (2010. Adorez 12). Izenak berak adierazten duen moduan edonora aldean eramateko hiztegia dugu. Bertan, eguneroko bizitzan beharrezkoak ditugun hitz guztiak jasotzen dira, hitzen adiera nagusiak aditzera emanez. Badu beste ezaugarri garrantzitsu bat ere, euskara ikasten edo aberasten ari direnentzat oso premiakoa. Bertan [* edo **] erabiliz zeintzuk diren lehentasunezko hitzak ematen da aditzera. Hori ezinbestekoa dugu gure ingurukoek eguneroko bizitzan beharrezkoak dituzten hitzak ikasteko. Honako hau irakurtzen dugu aurkezpenean:

*Zure esku jarri dugun MOTXILAKO HIZTEGIA deitu dugun hau (...) eguneroko bizitzako beharriaz erantzutera dator, bada. Era errazean erantzutera, gainera. Euskararen kasuan, bestalde, markatu egin dira bizkuntzaz gutxieneko maila lortzeko jakin beharrezkotzat jotzen diren hitzak (1.012) alboan [**] ezarritz nabiz oso beharrezkoak direnak (1.562) ondoan [*] erantsiz" (Motxilako hiztegia. 2010. Adorez 12).*

Ezin aipatu gabe utzi, ezta ere, aurrerantzean gure hiztegiek Internet bidezko eskaintzan izango duten gehigarri bat. Hots, unibertsitateko irakasle talde batekin lankidetzan lortutako ahozko eskaintza. Aurrerantzean, gure hiztegi-tako sarrerak ahozko irakurketa izango dute, nola ahoskatzen diren hitzak jakin nahi duenarentzat.

Amaitzeko esan beharra dago, baita ere, badugula euskal aditzaren ikerlan sakon bat ere plazaratua. Hiztegi erara anto-

latuta dugu kontsultak erraz egiteko. Bertan aditz batuaz gainera bizkaiera eta zuberera jasotzen dira.

Burututako lana: 1983-2013

Aurreko lerroetan esandakoa laburbilduz honako emaitza oparo hau dugu:

<i>Sinonimoen hiztegia</i>	Adorez 1	1983
<i>Euskararako hiztegia</i>	Adorez 2	1986
<i>Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna</i>	Adorez 3	1988
<i>Euskararako Hiztegia. Oinarrizkoa</i>	Adorez 4	1990
<i>Eskola Hiztegia. Irudiduna</i>	Adorez 5	1991
<i>Europa Hiztegia. Eskola berrirakoa +CD-ROM</i>	Adorez 6	1993
<i>Diccionario 3000 Hiztegia +CD-ROM</i>	Adorez 7	1996
<i>Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna (Handia)</i>	Adorez 8	1999
<i>Diccionario escolar 3000 Eskola Hiztegia</i>	Adorez 9	2001
<i>Diccionario 3000 Hiztegia. Eguneratua eta osatua+CD-ROM</i>	Adorez 7*	2002
<i>Eskola Hiztegia. Irudiduna. Berriztatua, eguneratua</i>	Adorez 5*	2005
<i>Euskal Aditza</i>	Adorez 10	2006
<i>ADOREZ hiztegiak -5000 hiztegia</i>	Adorez 11	2009
<i>Motxilako hiztegia</i>	Adorez 12	2010
<i>Euskal Hiztegia</i>	Adorez 13	2011

Gaur egungo egoera:

Une honetan merkatuan ditugun hiztegiak Euskaltzaindiak euskara baturako onartutako zerrendaren arabera zuzentzen ari gara. Dagoeneko zuzenduta ditugu, gehienak, edota zuzenketa-bidean jarriak. Hona hemen laburbilduta, zuzenketa-data erantsia dutela:

1. <i>Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna</i>	Adorez 3	2013
2. <i>ADOREZ biztegiak -5000 biztegia</i> . berriztatuta	Adorez 11	2013
3. <i>Eskola Hiztegia. Irudiduna. Berriztatua,</i>	Adorez 5	2013
4. <i>Motxilako biztegia</i> – Euskaltzaindiaren arabera	Adorez 12	2010
5. <i>Euskal Hiztegia</i> – Euskaltzaindiaren arabera egina	Adorez 13	2011
6. <i>Diccionario escolar 3000 Eskola Hiztegia</i>	Adorez 9	2013
7. <i>Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna (Handia)</i>	Adorez 8	1999
8. <i>EUSKAL HIZTEGI HANDIA: (60.000 sarrera) –Bidean</i>		2014?
9. <i>Euskal Aditza</i>	Adorez 10	2006
10. <i>INTERNETen: Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna eta ADOREZ biztegiak-5000 biztegia</i>		

Parte-hartzaileen zerrenda:

BOSTAK BAT lantaldeko kideak:

Aurrekoetxea Olabarri, Gotzon; Badiola Uriarte, Ricardo; Baraiazarra Txertudi, Luis; Goikoetxea Arrieta, Juan; Solabarrieta Etxaburu, Txomin; Uribarren Leturiaga, Patxi

Linguistak, lizentziatuak, itzultzaileak, irakasleak... (1983-2013)

AJURIAGOGEASKOA, Anizeto; ALEGRIA AIERDI, Edurne; ALKORTA BARRENA, Kasildo; ATXIKALLEDE BILBAO, Nestor; BARAIAZARRA TXERTUDI, Pizarre; BARRUTIA, Eneko; BURGAÑA MAZQUIARAN, Aritz; BURGOA, Antton; BUTRON JAUREGI, Joseba; DAVANT, Joan-Louis; DE NICOLAS PINTO, Iñaki; EGILUZ UGARRIZA, Jose Ramón; ERRASTI ARANBARRI, Iñigo; ETXEBARRIA BILBAO, Jose Ramon; FUENTES GOIKOETXEA, Beñat; GABIKA MENTXAKA, Alberto; GARAI ERREKATXO, Jabier; GARMENDIA, Mikel; GOIKOETXEA BILBAO, Atotz; GORROTXATEGI NIETO, Mikel; IRIGOIEN ETXEBARRIA, Alfontso; ITURBE BARRENETXEA, Jazinto; JAUREGI BARAIAZARRA, Eunat; KALTZADA, Julen; LETAMENDI URRESTI, Patxi; LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis; LOBERA REVILLA, Gotzon; MONTORIO URIBARREN, Bego; NABERAN NABERAN, Jesus;

ORBE MONASTERIO, Martin; ORMAZABAL, Manu; OSA IBARLOZA, Erramon; PIEDRA ANAKABE, Gabriel; UGARTEBURU, Angel; URRUXULEGI, Jon; ZALAKAIN GARAIKOETXEA, Jesus Mari

Bestelako laguntzaileak:

ARBAIZA ALVAREZ, Ainhoa; AUZOKOA OLAGOITIA, Iban; BEASKOETXEA GOTI, Maribel; GOTI ARTABE, Zuriñe; KORTA ARCELUS, Jon; LARRAZABAL BELAR, Eider; LINAZA GOIKOETXEA, Elena; SAN ESTEBAN MARTINEZ, Iratxe; TORREALDAI EREZUMA, Gotzone; TRABUDUA ENZUZNA, Mikel; URIBARREN ASPE, Gurutze; ZABALA URRIOLAUSOKOA, Ainhoa; ZULUAGA SAN ROMAN, Eneko

Azala eta irudiak: MONTORIO, Amaia eta UBIERNA, Jabi; ALONSO, Luis; ALBAIZAR, Aritz; MEDEL, Begoña.

Informatikariak: SEEBOLD, Carlos; ETXABE, Iñigo

Patxi Uribarren Leturiaga

Informazio gehiago:

www.5000adorezhiztegiak.org

www.karmelaldizkaria.com